

DURANGOKO HEZKUNTZA-ERRONKAK ELKARLANEAN GARATZEKO prozesua

UEK OTSAILEKO BATZARRA: akta

Eguna: 2025eko otsailak 19a
Ordua: 18:00-20:00
Lekua: Elkartegia
Bilera-modua: aurrez aurrekoa

DEITUTAKOAK	Etorritakoak	Etorri ez direnak
1. Asier Perugorria EAJ-PNV -hezkuntza zinegotzia	☒	☐
2. Nagore Lozano Zarandona (EH Bilduko zinegotzia)	☒	☐
3. Iker Txertudi (EAJ-PNVko zinegotzia)	☒	☐
4. Sheila Gonzalez (PSE-EEko zinegotzia)	☒	☐
5. Veronica Redondo (Immigrazioa Udala)	☒	☐
6. Daniel Irazola Atxa- Maristak-Zuzendaria	☒	☐
7. Moises Urien Arrizabalaga- Ikasketa Burua-Jesuitak	☐	☒
8. Arantza Arrizabalaga-Landako Eskola zuzendaria	☐	☒
9. Jon Gorriño Vicandi- Durango BHI zuzendaria	☐	☒
10. Oihane Garcia- Nevers ikastetxea	☒	☐
11. Iker Gomez de Segura Solis- Ibaizabal ikastola-Zuzendaria	☐	☒
12. Urko Rodriguez-Kurutziaga-zuzendaria	☒	☐
13. Izaskun Duñabeitia Kintana- Zabalarra HLHI zuzendaria	☐	☒
14. Oier Urigoitia-San Antonio ikastetxea zuzendaria	☒	☐
15. Maider Olabarria- IGE Zabalarra	☒	☐
16. Idoia Aldekoa (Elhuyar)	☒	☐
17. Olaia Jimenez (HUHEZI-MU)	☒	☐
	12	5

1. Sarrera eta girotzea

Hezkuntza zinegotziak bertaratuei harrera egin die ongi-etorria emanez. Jarraian, talde teknikoak gai-zerrenda eta helburuak aurkeztu ditu saioaren kokapena egiteko:

1. Sarrera eta kokapena.
2. Ekintza-planaren garapena:
 - Harrera-planen azterketa: ikastetxeek eta udalak egiten duten harrera-prozesua ezagutu eta partekatzea.
 - Mugikorren erabilera arduratsu eta jardunbide egokirako ikastetxeek modu bateratuan adostutako gutxienekoak. Gaiari itxiera.
3. Komunikazio-plana
4. Balorazioa eta itxiera.

Helburuak:

- Talde kohesioan sakontzea.
- Hezkuntza-erronkak modu bateratuan lantzea.
- Komunikazio-planean urratsak ematea.

Aipatu dugu Harrera-planaren puntuarekin hasiko garela, Veronikak parte hartuko duelako saioan eta gero puntuetan bera ez delako egongo.

2. Ekintza-planen garapena:

2.1. Harrera-planen azterketa: ikastetxeek eta udalak egiten duten harrera-prozesua ezagutu eta partekatzea.

Hasteko, erronka gogoratu dugu. Herri, bizikidetza eta hezkuntza azpierronkaren baitan kokatzen dela harrera-plana. Ekintza nagusi batean murgilduta ari garela lanean: zehazki ikastetxeetako eta udaleko harrera-planak aztertu, bateratu eta osatzen.

Herria, bizikidetza eta hezkuntza

Harrera plana

Ikastetxeetako eta udaleko harrera planak aztertu, bateratu eta osatzea.



Erronkaren baitako ekintza lantzeko diseinatu zen prozeduran, bost saio aurreikusi ziren. Martxora arteko ibilbidean, ordez, bi saiora iristea aurreikusi genuen.

Estrategia:	Etorri berrientzako harrera eraldatzea, herri mailako ikuspegitik eta eragileen arteko osagarritasunetik.					
Helburua:	Durangora datorren orok herritarren lagunduko dion harrera abegikor bat jasotzea.					
EKINTZA:	Ikastetxeetako eta udaleko harrera planak aztertu, bateratu eta osatzea.					
FASEAK	Aurrelanak (ekaina – uztaila)	Garapena (iraila – abendua)		Ebaluazioa (urtarrila)		
SAIOAK		1. saioa	2. saioa*	saioen artean	3. eta 4. saioa	5. saioa
URRATSAK	Lanerako taldea sortu: UEK. Ikastetxe bakoitzak dituen arau/prozedurak ezagutu eta argazkia osatu.	Eragile ezberdinek egiten duten harrera prozesua ezagutu eta partekatzea.	Harrera egiteko begirada integratu eta oinarri komun bat jartzea.	Etorri berri diren eta prozesua egina duten familia eta herritarren ahotsa jasotzea, euren beharrak identifikatu eta egiten denaren feedbacka jasotzeko.	Jasotako ekarpenekin harrera planak berdiseinatzea, ikastetxeen eta udalaren prozesuen osagarritasuna zainduta.	Osatutako harrera plan integralaren balorazioa
EMAITZAK	Taldea sortuta	Azterketa		Elkarriketak	Harrera plan berriak	

*Baloratu zen prozesuan 5 saio izanik eta bi ekintza, harrera egiteko oinarri komun bat jartzeraino urratsak egingo zirela.

Aurrelanen fasean ikusten den bezala, lehen urratsa izan zen ikastetxeetako harrera-planak edo -prozedurak ezagutzea eta argazkia osatzea; horretarako, ikasturte hasieran, mugikorren gaia aktibatzearekin batera, galdetegi bat bidali genuen ikastetxeetara. Orain arteko lanketan, bi ekinaldi egin dira informazio jasotzeko. Lehendabizikoa, irailean, ikasturte hasierako galdetegi baten bidez. 6 erantzun jaso ziren. Bigarrena, berriz, urtarilean. Azken honetan, 7 erantzun eta harreraren dokumentu oso bat. Bi emaitzen artean ez dago alde nabarmenik.

Harrera-planaren azterketarako galderak (I):

1. Zure ikastetxeko harrera-planak, zein **urrats** jasotzen ditu?
2. Harrera-plana osatzeko **informazio-bilketan**, zein zailtasun izaten dira? Zelan egiten diozue aurre?

3. Nork du harrera-planaren **ardura**? Ardura partekatua da? Ikasleek zein rol jokatzeko dute?
4. Harrera ikasle etorri berrien eskola-ibilbidea ondo bideratzen laguntzeko da. Zertan **laguntzen** du? eta alor horretan zertan **hobetuko** zenukete?
5. Harrera-plana osatzeko, ikasle etorri berrien **familia-egoera ezagutzea** funtsezkoa da. Zeintzuk dira horretarako aurkitzen dituzuen aukerak eta mugak? Alor honetan, zeintzuk dira zuen esperientziatik ateratzen dituzuen irakaspenak harrera-plana hobetzeko?
6. Harrera-planean ikasle eta familiei laguntzeko **erakundeen arteko informazio-trukea** eta eragileen arteko koordinazioa beharrezkoa da. Zein da zuen esperientziatik alor honetan ateratzen dituzuen irakaspenak harrera-plana hobetzeko?
7. Harrera-planaren **komunikazioa**: nola egiten da irakasleekin? Nola egiten da ikasleekin? Eskola Kontseiluan edo OOGean? Beste egituraren batean komunikatzen da?
8. Harrera-planaren **ebaluazioa**, nola egiten da? Zeintzuk dira ondorio nagusiak?
9. Harrera-plana **zein euskarritan** jasotzen da? (dokumentu idatzi bat dago, orri informatiboa...).

Harrera-planaren azterketarako galderak (II):

1. Durangora datorren orok herritartzen lagunduko dion harrera abegikor bat jasotzea, zer esan nahi du zuretzako? Azaldu labur esanahia.
2. Zure ikastetxeko harrera-planaren helburua adierazi eta zein funtzio zehatz dituen azaldu.
3. Zein urrats ditu zure ikastetxeko harrera-planak? Urrats bakoitzean, zein d(ir)a arduradura(k)?
4. Familia etorri berriaren egoera ezagutzeko, zeintzuk dira dituzuen aukerak eta mugak?
5. Harrera-planarekin ikastetxean duzun esperientzian oinarrituta, zer da hobetu edo aldatuko zenukeena?
6. Aipatu gabe geratu den alderdirik gehitu nahiko bazenu, hemen duzu aukera.

Jarraian, lanketari begira bi **helburu** ditugula azaldu da:

- Alde batetik, Ikastetxeek eta Udalak egiten duten harrera-prozesua ezagutu eta partekatzea (argazkia osatzea). Hemen galdetegietako emaitzen sintesia azaldu da.
- Bestetik, harrera-prozesuak aztertu eta ondorioak ateratzea eta garapenerako oinarri komunak lantzea. Oinarri komunak lantzearekin esan nahi da kontuan hartu beharreko alderdiak edo hobekuntzak detektatzea.

Emaitzen sintesiari begira, honako hau aurkeztu da:

ESANAHIA

Herritartzen lagundu eta harrera abegikorra

- ondo etorria dela jakitea
- badela leku bat berarentzat jakitea, baduela non kokatu eta nork entzungo duen bermatzea.
- egokitze prozesuan laguntzeko
- lagundu nahi zaiola jakitea
- baliabideak eskura jartzea:
 - bizitza duinerako
 - Durangoko idiosinkrasiara hurbiltzeko
 - Lortzeko dokumentazioa
- eskubideak eta betebeharrak barneratzen laguntzea
- eguneroko bizitzan partaide sentitu dadin: kirola, aisia, kultura, hezkuntza, hizkuntza...
- informazio irigarria, leku fisiko batera joan ahal izatea ordutegi zabala duena



Kontuan hartzekoa

- Durangon "herritartu" nahi izatea edo ez



12


HELBURUA FUNTZIOA

Helburuak

Kasu batzuetan ohiko matrakula garaian etorritako ikasleak dira eta Haur Hezkuntzako lehen zikloan eskolaratutakoak eta beste batzuetan espeziako etorritakoak, beste hainbat batzuetatik eta/edo EAEko hizkuntza ofizialak ezagutzen ez dituzten, eta eskolara egokitu eta hizkuntza ikasleko prozesua jarraitu behar duten ikasleak dira.

Funtzioa

- Banakako harrera egiten dugu: Elkarnizketa baten bitartez ikasle berriaren egoera zein den ezagutzen dugu. Egoera akademiko, soziala eta legala.
- Funtzioak: informazio argia helaraztea, lehen egunetako egokitzapenean bidelagun izatea eta familiarekin hartu eman estua edukitzea.
- Akademikoa eta baloreen gainekoa da: Ikastolaren izaera, identitate-printzipioak, eraikinaren antolaketa ezagutu, ikasleak ezagutzeko eta interakzioa nahiz talde-pertinentzia ahalbidetzeko dinamikak, ikasgaien antolaketa komuna (ebaluazio-irizpideak, e.a.)... ikasleenganako banakako arreta dago, tutore pertsonalen bitartez egiten dena, baina propio harrera-plana deitzen dioguna taldekota da.
- baliabideak eskaintzea



14

URRATSAK ARDURAK

3. Zein **urrats** ditu zure ikastetxeko harrera-planak? Urrats bakoitzean, zein d(ir)a **arduraduna(k)**?

	URRATSA	ARDURADURA
1	Hainbat urrats.	Zuzendaritza, orientatzailea, tutorea
2	Harrera egitea	Irakasleak
3	Harrera taldea osatzea	Zuzendaritza, koordinatzailea, tutorea eta kasuak, hizkuntzetako irakasleak.
3	Planaren helburu eta pausak definitzea: ongi etorria, ikastetxearen aurkezpene, familia zein ikasleak ezagutzea, ordutegi baten finkapena, materiala aurkezte, komunikazio-bideak finkatzea eta parte hartzea sustatzea	
4	Beraiek dira ikasle eta familiarekin harreman estuena izango dituzten pertsonak. Lehen kontaktu batean bere egoera zein den aztertzen dugu eta horren arabera bideratu egiten dugu: gizarte langileak, inmigratio teknikaria...	matrikulazio arduraduna eta tutoreak dira.
5	Hitzorduko egokitzapena	Etapako koordinatzailea
	Elkarrizketa	Etapako koordinatzailea
	Bisita: Bisitan zehar irakasle taldea aurkeztuko da	Etapako koordinatzailea
	Informazio administratiboa	Idazkaria
6	Datu basea osatu	Idazkaria
	Eskolako harrera planak kontuan hartzen ditu irakasleak, ikasleak, familiak eta bestelako langile ez-irakasle guztiak. Horietako bakoitzak ditu arduradun ezberdinak.	irakasleak, ikasleak, familiak eta bestelako langile ez-irakasle guztiak.

16

URRATSAK ARDURAK


3. Zein **urrats** ditu zure ikastetxeko harrera-planak? Urrats bakoitzean, zein d(ir)a **arduraduna(k)**?

	URRATSA	ARDURADURA
7	Ohiko matrikula garaiko harrera	Zuzendaritza, gero tutoreak
	Ohiko matrikula garaik kanpoko harrera	
	1-IKASLE ETORRI BERRIEN JAKINARAZPENA eta 2 -ZERRENDIA OSATZEA	(Administratzailea eta hiritartasun ordezkaria)
	3-HASIERAKO DOKUMENTAZIOA JASO eta 4 -HURRENGO HITZORDUA	(Idazkaritza)
	5-FAMILIAREKIN ELKARRIZKETA	(Koord. Pedagogikoa eta zikloko koord.)
	6-ZIKLO LANTALDEAN HARTU BEHARREKO NEURRIEN PROZEDURA	(zikloko koord. eta tutore, zikloko LT.)
	7-BIGARREN ELKARRIZKETA (Zikloko Koord eta TUTOREAK (IKASLE eta FAMILIAREKIN))	(Tutorea/HIPI/orientatzailea, Ziklo Koord Elkarrizketa foroa, Guraso Elkarte, "Ezagutu Biz")
	8-ESKU-HARTZEKO BANAKAKO PLANA ZABALDU	(Tutorea/HIPI/orientatzailea)
	9-IKASLEAREN HARRERA IKASTETXEAN	(Tutorea, Ziklo Koord. Ziklo LT Enbajadoreak)
8	10-FAMILIEN HARRERA	(Elkarrizketa foroa, Guraso Elkarte, "Ezagutu Biz")
	11-EBALUAZIO MODUA: HASIERAKO EBALUAZIOA eta EBALUAZIO JARRAIA	(Tutorea/HIPI/orientatzailea, Ziklo Koord, errefortzu irakasleak, eskuhartzea duten irakasleak)
	12-TUTOAREN JARRAIPENA EBALUAZIOA	(Tutorea/HIPI/orientatzailea)
	13-ESKU-HARTZEKO BANAKAKO PLANA	(Ziklo Koord, eta eskuhartzea duten irakasleak, Orientatzailea Errefortzu irakasleak)
	14-EBALUAZIO JARRAIA	(Tutorea/HIPI/orientatzailea)
	15-BANAKAKO TXOSTENA	(Tutorea/HIPI/orientatzailea)
	16-KURTSO AMAIERAKO PROZEDURA: MEMORIA eta AZKEN ELKARRIZKETA eta HARRERA familiarekin	(Koord. Tutore LT Ziklo LT Ongizate arduradunak, Orientatzaile- kontsultoreak Errefortzu irakasleak)

17

URRATSAK ARDURAK


3. Zein **urrats** ditu zure ikastetxeko harrera-planak? Urrats bakoitzean, zein d(ir)a **arduraduna(k)**?



18

AUKERAK MUGAK

4. Familia etorri berriaren **egoera ezagutzeko**, zeintzuk dira dituzuen **aukerak** eta **mugak**?



20

HOBETU ALDATU

5. Harrera-planarekin ikastetxean duzun esperientzia oinarrituta, zer da **hobetu** edo **aldatu**ko zenukeena?

Hobetu:

- **Koordinazioa**: Gure ikastetxeko ezaugarriak kontuan hartuta (tamaina handia) zailtasun handiena da eragile guztien arteko koordinazioa.
- **Baliabideak**: Ikastetxeki funtzio sozializatzaile eta integratzaileak ematen zaizkigu, hertsiki hezkuntzazkoetatik harago, baina baliabideak eta bitartekoak mugatuak dira. Kasuistika askotarikoagoari egin behar zaio aurre eta egoerak konplexuagoak dira garai batean baino, baina baliabideak ez dira neurri berean hazi inolaz ere.
- **Batzilergoa**: Etapen ezaugarriengatik, edukiak ezin dira egokitu.
- **Familien 'presioa'**, dugun formazio mugatua, emaitzen gaineko giro 'lehiakorra', ikasle-ratioak, e.a. ere mugatzaile dira.
- Ikaslearen **alde emozionala ezagutzeko** modu desberdinak garatzea eta berarekin dauden irakasleen koordinazioa gehiagotan egitea.
- **Ume etorri berriaren jakinarazpena**: egun batetik bestera mezu baten bidez, ume berri bat hasiko dela jakinarazten digute eta horrela, ez dugu harrera patxadaz egiteko astirik izaten. Lehentasuna ikaslea gurean hastea izaten da eta ahal dugun hoberen hartzen saiatzen gara.
- **Gizarte eragileen mapa** (Durango edo Durangaldea): atzeritarrak gurera datozenean oso galduta egoten direlako. Zerbitzu edo erakunde asko daude, baina askotan atzeritarrek ez dakite nondik hasi. Zein da lehenengo pausua? Norengana joan behar dut? ze elkarte dago eta non?
- **Harreraren jarraipena**: ez da egiten egin ahal zitekeen bezain ondo. Etengabeko harrerak egiten ditugunez, hasiera horretan aktibatzen diren ahalegin horien jarraipena oso laburra da, agian epe luzerako egoera zaindu beharko litzateke. Artatua izan diren horien asebetetzea eta jarraipena jaso beharko litzateke.
- **Familia lagunak**: Eskolako parte hartze espazioetara lagunduko dion familia-laguna bilatzea, espazio horiek anitzagoak izan daitezen espazio seguru bezala identifikatu ditzatela.

21

APARTEKO AIPAMENAK

6. **Aipatu gabe** geratu den alderdirik gehitu nahiko bazenu, hemen duzu aukera.

UEK baliabideen gida	Harrera-plana adin eta etapaka desberdina izan behar da. Udal eskola-konseiluari agian baliabideen eta ideien banku bat egitea dagokio, bertatik nork berea hartu ahal izan dezan. 'Banku' horretan udalak eskaintzen dituen heldulekuak barneratu beharko lirateke, baina, betiere, ikastetxeok harrera testuinguru pedagogiko eta akademikoan egiten dugula (eta egin behar dugula) kontuan hartuta (beraz, hezkuntzaren alorrean kokatutako harrera-tresnak dira berariaz bilgune honetan erauti behar ditugunak).
Udalaren zerbitzuen informazioa	Udaletxeak ikasle hauei zerbitzu bereziak eskaini beharko lizkie eta hala izatekotan, ikastetxeak jakitun izan beharko lirateke. Adibidez, aurreko astean Gurutze Gorriak ikasle etorri berriei Euskara errefortzuak ematen dizkiela jakin genuen. Zerbitzu hauen berri jakingo bagenu, ondo egongo litzateke.
Harreraren jarraipena	Ez da egiten egin ahal zitekeen bezain ondo. Etengabeko harrerak egiten ditugunez, hasiera horretan aktibatzen diren ahalegin horien jarraipena oso laburra da, agian epe luzerako egoera zaindu beharko litzateke. Artatua izan diren horien asebetetzea eta jarraipena jaso beharko litzateke.

GAI EMERGENTEAK

Harrera protokolo bat Durangalderako	Erakundeen artean, ez dago informazio-trukerik, edo gutxitan izaten da. Hezkuntza mailan hau dena ez dago legislaturik, eta gainera, ez da erraza protokolo bat ezartzea, aurreko ikastetxeetan ez bada horrela jokatu. pixkanaka pausuak ematea.
Koordinazio egitura bat	Gizarte Zerbitzuen eta ikastetxeen arteko koordinazioa eta elkarlana. Erakundeen artean, ez dago informazio-trukerik, edo gutxitan izaten da.

22

Ondorio orokorrak



1. Jatorri-herrialde ezberdin batetik datorren familiako ikaslearen harreraz gain, beste harrera motak ere badaude.
2. Urratsak ezberdinak dira ikastetxeetan, kontuan hartzen direlako aldagai ezberdinak.
3. Informazio-bilketa jatorrizko hizkuntzak baldintzatzen duela azpimarratzen da eta horri aurre egiteko dispositibo falta, batez ere.
4. Ardura partekatua, elkarlan eta ikasleen rol aktiboa ikastetxe barnean.
5. Harrera, batez ere, ikasleak ezagutzeko eta ikasmailan kokapena egiteko laguntzen du.
6. Ikasle etorri berrien familia-egoera ezagutzea funtsezkoa da, hizkuntza da zailtasunik nabarmenena. Familia-egoera asko ez dira benetan ezagutzen, soilik familiarik edo ikasleengandik jasotzen dena eskuratzen da. Beste zentro batean, ikasturtero, ikasleen erdia aldatzen da.
7. Ikastetxeen eta Gizarte Zerbitzuen arteko koordinazioa faltan botatzen da. Erakundeen artean, ez dago informazio-trukerik, edo gutxitan izaten da.
8. Ondo legoke, Durangalderako, protokolo bat pentsatu eta pixkanaka pausuak ematea.
9. Harrera-planaren komunikazioan une eta kanal ezberdinak erabiltzen dira.
10. Oro har, ebaluazioan hutsunea dagoela adierazi da. Kasu baten, etengabea da ebaluazioa, eta beste batean, ikasle, irakasle eta familiengandik kexak eta iradokizunak jasotzen dira.
11. Komunikazioa: Irakasleekin klustroan, ikastetxe barneko intraneta, eta bileretan. Ikasleekin, plataforman, ikasturte hasieran eta tutoretza-saioetan. OOGean onartzen da.

23

Emaitzak aurkezten ari garen bitartean, oharrak hartzeko eskatu zaie partaideei (zalantzak, galderak, ekarpenak...) jaso ahal izateko. Aurkezpena bukatutakoan, galderetarako tarte ireki da, baina ez da galderarik egon.

Segidan, Udaletik, Veronicari tarte emango zaio:

Veronikak orri bana banatu du. Bertan 2024ko harrera- eta gizarteratze-programak azaldu ditu:

- Informazio eta baliabideak eskuratzeko:
 - o Online baliabideen gida: www.durangonbizi.net
 - o 'Bizitzeko leku bat' bisita gidatuak.
- Arlo juridikoa.
- Hizkuntza ikaskuntza
- Gizarte-eta hezkuntza-arloa
- Arlo soziosanitarioa.
- Lan arloa.
- Emakumeen ahalduntzea.

Hainbat indar-ideia jarri ditu mahai gainean:



- Ikuspegi komunitarioaren garrantzia harrera bideratzerakoan, begirada komunitario hori ulertuz ingurunea ezagutzetik eta harreman-sareak eraikitzen.
- Harrera-uneke ateak askotarikoak izan daitezkeela, ez dagoela soilik ate bakar bat.
- Egiten diren ekintzak bi eremuetan ardatzen direla, integrazioa eta bizikidetzatza.

Era berean, arreta eskaini zaio batetik, Landako eskolan egiten ari diren Denboraren Bankua egitasmo pilotuari. Lanketa komunitarioa egiten ari dira eta behar kurrikularrei ere erantzuten ari dira. Ongi etorri eskolara egitasmoari heltzeko, berriz, ez da familia-lagunik izan eta, beraz, ez da aurrera eraman.

Bestetik, galdera bat luzatu zaio Veronicari: zein unetan elkartzen zarete Udala eta eskola? Ez dago une jakinik dirudienez. Hala ere, badaude zenbait ekintza ikastetxeei eskaintzen zaienak, hala nola:

- Udalak eskaintzen dituen bisita gidatuak daude. Orain arte ondo funtzionatu dute, baina parte hartzea jaitsi egin da.
- Udalak gaiarekin lotutako material interesgarria sortu zuen ikastetxeentzako eta ikastetxeek esan dute oso baliagarria izan zela.
- Harrera linguistikoaren programan herri mailan bikotekakoak errazago funtzionatzen du, familiekin baino (Landakoko egitasmoan ikusi den bezala).

Azpimarra jarri da ere lotarako lekuri ez duten familien-egoeretan. Proposatu da gai honen lanketa egiterakoan, garrantzitsua dela migratu duten pertsonen bizipenak azalera eta ezagutzea, eta jada egun bere tokia duten gazteen baina bere egunean "hori" bizi izan zutenekin lanketak egitea.

Veronicaren ekarpenak entzun ondoren, talde-ariketa egitera igaro gara. Taldean gauden heinean, partaideei adierazi zaie begirada pixka bat altxatzea eskatzen duela eta, nahiz eta bakoitzak bere ikastetxea izan abiapuntu, begirada altxatzeak eskatzen du argazki osoa hartzea kontuan eta planteatzen ditugun galderei argazki osoa kontuan hartuta erantzutea.

2 talde egin ditugu eta bakoitzari lanerako fitxa bat emango diegu tamaina handian papelografoan. Fitxa galdetegiko emaitzen eremuen arabera antolatua dago eta bi zutabetan eman behar dira erantzunak: ondorioak atera eta oinarri komunak lantzeko.

Bi taldeetan ateratako ondorio eta oinarri komunak hauek izan dira:

A TALDEA	ONDORIOAK	OINARRI KOMUNAK
ESANAHIA Durangora datorren orok herritartzen lagunduko dion harrera abegikor bat jasotzen laguntzen du?	Laguntzen du, bai. Ikastetxe bakoitzak bere idiosinkrasia du, baina helburu bakarra: "familia inklusioa" eta "abegikorra". Hizkuntza: gai bada, ezberdin lan egiten da. Identitatea. Adinaren arabera: harrera norekin egiten den, umea edo gaztea, familia...	Taldearen parte izatea. 'Inklusioa', elkarbizitza.
HELBURU-	Ez dago oso argi helburuak/funtzioen gaia. Umeekin lan egiten dugun	Ikasketa materiala egokitu.

FUNTZIOAK Helburuak eta funtzioak argiak dira? Herritartzen laguntzen dute?	neurrian itinerario akademikoa bada helburu bat; etapan berandu badator, helburua ere aldatzen da; aurretiko etapetan agian beste helburu batzuk nagusitzen dira (euskara salbuetsita eta materiala erdaraz ematen zaie)	
URRATSAK-ARDURAK Ematen diren urratsak helburuari erantzuten diote? Urratsik gehitu edo aldatu beharko litzateke?	Eskolatzen laguntzen du, baina zalantza herritartzen laguntzen duen. Harreran fokua ipintzen dugu, baina jarraipena eta ebaluazioa?	Jarraipena: eskolan eta herrian. Ebaluazioa
FAMILIA-EGOERAK EZAGUTZEA Familia-egoeren informazioa eskuratzen da eta beharrei erantzuten die? Agertzen diren zailtasunen erantzunik badago?	Harrera-planak egiten ditugu gure ikuspuntutik (ikuspegi paternalista). Harrera-planari buelta eman behar zaio eta euren beharretatik diseinatu. Komunikazio bideak, zelan heldu? Komunikazio bide eta moduak agian aldatu behar dira eta agian familia horiekin beste kanal batzuk probatu (kartelak bakarrik ez da efizientea).	Zelan txertatu migratuen ahotsa harrera planetan.
APARTEKO GAIK ETA EMERGENTEAK Nola ikusten duzue Durangalderako harrera protokolo bat eratzeke ideia? Eta ikastetxeen eta Gizarte Zerbitzuen arteko koordinazio egitura bat eratzearen ideia? (beharra, egingarritasuna...)	Talde interseksionala sortzea proposatu da: euskaltegia+ikastetxeak+udala+GG. ZZ.	Larrialdi egoeratan zer? Nora joan? Zer egin?
BESTERIK?	Koordinazioa, eskola-Udala.	Koordinazio eraiki. Eskola-Udala. Beste herri batzuetako kasuak aztertzea interesgarria izan daiteke. Guztiz beharrezkoa da gai honetan udala eta ikastetxearen arteko koordinazioa

B TALDEA	ONDORIOAK	OINARRI KOMUNAK
ESANAHIA Durangora datorren orok herritartzen lagunduko dion harrera abegikor bat jasotzen laguntzen du?	Zer da harrera? Harrera vs. Integrazioa. Zalanza ageri da kontzeptuekin (integrazioa, inklusioa...). Zalanza ez ote ari garen gure beharretik lan egiten eta ez eurenetik. Ez zaigu argi geratu harrerak zer esan nahi duen.	
HELBURU-FUNTZIOAK Helburuak eta funtzioak argiak dira? Herritartzen laguntzen dute?	Egokitze-integrazioa-akademikoa-harremanak-kidetza/onarpena. Aurkeztu dena baliagarria izan da, argiak izan dira harrerak izan ditzakeen fase edo helburu ezberdinak	Identifikatu dugu prozesuaren helburuak argiak izan arren, larrialdi egoeretan dena hankaz gora jartzen dela. Larrialdi egoeratan, zer egin?
URRATSAK-ARDURAK Ematen diren urratsak helburuari erantzuten diote? Urratsik gehitu edo aldatu beharko litzateke?	Orokorrean ikastetxeak bai. Gabezia arautegian, askotan boluntarioa da.	Aukera bezala ikusten da erakundeen artean sinergietan sakontzea
FAMILIA-EGOERAK EZAGUTZEA Familia-egoeren informazioa eskuratzen da eta beharrei erantzuten die? Agertzen diren zailtasunen erantzunik badago?	Eskolak bai ipintzen ditu bere mekanismoak martxan familien beharrak jasotzeko. Ahal dugun neurrira arte. Zailtasunak daude askotan beraien egoerak jasotzeko, espektatiba altuak sortzen ditugu eta horregatik, gero frustrazioak sortzen dira eta ematen du ez dugula ezer egiten, eta egiten dugu.	Larrialdiak sistematizatu. Ematen diren egoerak identifikatu eta kasuan kasu sistematizatzea interesgarria da, eta arautzea egoera jakinei eman beharreko erantzunak nolakoak diren
APARTEKO GAIK ETA EMERGENTEAK		
BESTERIK?		

Bi taldeen erantzunak ikusita, honako hauek dira ondorio eta oinarri bateratuak:

Ondorio nagusiak:

- Familien inklusioaren garrantzia.
- Hizkuntzaren arabera lan ezberdina egin behar da.
- Migratuen adinaren arabera harrera ezberdintzea.
- Harrera zer den definitzea edo zehazteko beharra. Eskolen harrera integrazioa da?
- Eskolaratzen laguntzen badu ere, herritartzen laguntzen duen zalanza agertu da.

- Harrera-planaren ikuspuntu 'paternalista' dago, eta harrerak gure beharretatik diseinatzen ote ditugun, eta ez hainbeste migratuen beharretatik.
- Koordinazio beharra eskola eta udalaren artean.
- Talde interseksionala behar da.
- Larrialdi egoeretan, zer? Proposatu da agian kasuen azterketa egin eta, erantzuna sistematizatzeko lan bat egin daitekeela.
- Baliabideen gaia: kuotak ordaindu ezin diren kasuan, bekak... Gai honekin ikastetxeetan nola jokatzeko den partekatzea interesgarria litzatekeela proposatu da.

Oinarri komunak:

- Taldearen parte, elkarbizitza bat.
- Hizkuntza nola landu, materiala egokitu 'linboan' ez geratzeko.
- Harrera-planaren jarraipena eta ebaluazioa nola egin.
- Larrialdi egoeretan zer egin eta nora jo argitzeko beharra.
- Araudia behar da, interseksionalitatea behar da.
- Sinergiak behar dira.
- Zelan txertatu familien ahotsa.

Ondorio eta oinarri hauetatik abiatuta ekintzaren lanketarekin jarraituko dela adierazi da.

2.2. Mugikorren erabilera arduratsu eta jardunbide egokirako ikastetxeek modu bateratuan adostutako gutxienekoak.

Mugikorren gutxienekoen dokumentua emailaz bidali zela gogorarazi eta hurrengo saioan egingo dela itxiera adierazi da.

3. Komunikazio-plana.

Komunikazio-gaia lantzeko denborarik gabe geratu gara. Hala ere, minutu gutxitan jakinarazi da azaroko saioan UEKean egiten dena transmititzeko bideo bat egitearen ideia atera zela eta Udalak egingo duela bideoa, saioetako irudiak hartuz eta kideon ahotsak jasoz. Horretarako, talde teknikoak gidoi erako planteamendu bat zekarrela gaurko saiora azaldu dugu, gidoiaren egitura eta edukia kontrastatzeko. Izan ere, helburua da martxoko saioan bideorako irudiak hartzea eta elkarrizketen grabazioak egitea. Hiru galdera luzatzen dira proposamena aztertzeko:

- Nola ikusten duzue galderen norabidea?
- Edukiren bat faltan bota duzue?
- Zeinek zer erantzungo du?

Hobetsi da, emailaz bidaliko dela bideo-grabazioa egiteko talde teknikoak prestatutako proposamena, bertan, UEKaren prozesuaren testuingurua eta zenbait galdera proposatzen dira. Dokumentu hori bidaliko da partaideen ekarpenak jasotzeko eta martxoko saioan grabazioa egingo da.

4. Hurrengo saioko data.

Martxoak 19, Elkartegian.


5. Balorazioa eta itxiera:

Saioa ixteko, hitz batez nola doazen galdetu zaie partaideei:

- Ariketa zaila.
- Ondo
- Ikasi egin dut gaur.
- Beharrezkoa.
- Ilusionantea.
- Zaila egitea.
- Konplexua.
- Erronka polita.
- Gustura.


Saioaren balorazioari dagokionez, 6 partaidek erantzun dute ebaluazio-galdetegia. Hona hemen erantzunen laburpena:

1. Sexua
6 erantzun




2. Bileraren ordutegia eta iraupena egokiak izan dira

6 erantzun




3. Bilera lekua egokia izan da

6 erantzun




4. Lanerako giroa atsegina izan da

6 erantzun




5. Gaiak lantzeko modua gustatu zait

6 erantzun




6. Parte-hartzea zabala eta anitza izan da

6 erantzun




7. Biler aurretik jasotako informazioa egokia izan da

6 erantzun




8. Ekarpen interesgarriak egin dira

6 erantzun



9. Bileran izandako parte-hartzeak asetu nau

6 erantzun



INDARGUNEAK	HOBETZEKOAK
• konfiantza • Gai garrantzitsua • Taldeak hartutako konpromisoa eta eskuzabaltasuna. Saiorako egindako aurretiko lana eta berau garatzeko gaitasuna. • Dinamizazioa eta pertsonen parte hartzea • Talde lanak bere fruitua ematen du. • Ezin hobeto aukeratutako gaia	• Agian hilean behin egiteak, denak ezin dute etorri. Eskola batzuk falta ziren, kasualitatez publiko denak • Benetan eskola bakoitzak gaiarekiko dituen premiak ez dira azaldu. Udala laguntzeko prest badago, kasuen kopuruaren arabera ala eskolen eskaeran arabera? Premiak oso ezberdinak direla iruditzen zait. Ustez premia gehiago izan dezaketen ikastetxeetako ordezkariak falta ziren. • Ez dakit hobetzeko aukerarik ote dugun baina ordutegiak ez du gehiegi laguntzen nahiz eta gero, saioak arinak eta baliagarriak suertatu. • Aurpegi batzuen falta • Zaila egiten zait ordu biko saioa aurrera eramatea, asteazkenetan lanean nago 18,00ak arte eta gero beste bi ordu ezinezkoa egiten didate nire bizitzarekin uztartzea • Ordutegia